

KONTROL MOZIOA

UDAL GOBERNUKIDEEN HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERARI DAGOZKION IRIZPIDEAK DIRELA ETA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko uztailaren 20an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia euskararen hiria izanik, ugari dira euskararen erabilera sustatze aldera, Udalean bertan, zein udalerrian oro har, Donostiako Udalak egituratu dituen programak, planak, egitasmoak eta abar. 1991etik aurrera ezarriak dira eremuotan hizkuntza ofizialen erabilerari dagozkion irizpideak, Donostiako Udalak euskararen erabilera normalizatzeko arauak onartu ondoren.

Halaber, gaur egun, erronka nagusia ezagupenean baino gehiago erabileran pausoak ematean datzala guztion artean onartua da, eta, hain zuzen ere, Donostiako Udalak norabide horretan lan sakona eta handia egin du, aipatu diren bi eremu zabal horietan, hots, bai udal barneari begira bai kanpoan aritzeari dagokionez. Batetik, 2013ko uztailetik indarrean dago “*Euskararen erabilera normalizatzeko plana Donostiako Udalean - 5. plangintza aldia (2013-2017)*”. Bestetik, aurtengo apiriletik “Donostiako Euskararen Plan Orokorra” martxan da, lehendik zetorren hariari jarraiki, eta modu parte hartzaile, planifikatu, integral eta iraunkorrean burutua. Horrela azpimagarria da plan horretan, Donostiako Udalaren nahia ez ezik, Donostiako eragileena, auzoetako batzordeetako kideena, Euskararen Aholku Batzordeko kideena eta prozesuan parte hartu duten norbanakoena ere jaso zela. Beraz, adostasun handiko plana dugu.

Gaur egungo udal gobernukide guztiak euskaldunak ez direnez, Udalaren eguneroko jardunean, barrura zein kanpora begira, hiriak onartuak dituen hizkuntza irizpideen betekizuna ziurtatzeko zailtasunak eta oztupoak gerta daitezke; ondorioz, bai eta euskararen erabileran atzerapausuak eman ere. Horiek horrela, hauxe da gure **MOZIOA**:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala herritarrek hautatutako hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izatea Udal Gobernuako kideen eta beraien arteko harremanetan, bereziki ahozko erabilera egoeretan, eta herritarrek ez dezatela hautatutako hizkuntza ofiziala baztertu eta beste hizkuntza batera jo beharrik izan aipatutako harreman horietan.

Donostian, 2015eko uztailaren 24an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea